

# **ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA DRAMATIZAZIOAREN BIDEZ**

**IKASLEAREN GIDA**  
**6. moduluko diziplinarteko lana**

**HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA. 4. maila**

**2024-2025 ikasturtea**

## AURKIBIDEA

1.	TESTUINGURUA	3
2.	MODULUKO IRAKASLE TALDEA	4
3.	EZAUGARRI OROKORRAK	4
4.	MODULUAREN BEREZKO KONPETENTZIAK	5
5.	IKASKUNTZA-SORKUNTZA PROZESUA	5
6.	IRAKASLEEK ETA IKASLEEK GARATU BEHARREKO JARDUERAK	6
7.	GALDERA ERAGILEAK	7
8.	EGIN BEHARREKO LANAREN DESKRIBAPENA	8
	8.1. Proiektuaren txosten idatzia (1. emangarria)	11
	8.2. Proiektuaren espazio birtuala (amaierako emangarria)	12
9.	EMANGARRIEN KRONOGRAMA ORIENTAGARRIA	13
10.	MODULUKO LANAREN EBALUAZIOA	15
	10.1. Etengabeko ebaluazioa	15
	10.2. Azken ebaluazioa	15
	10.3. Ezohiko deialdia	15
	10.4. Ebaluazio errubrika	16
11.	MODULURAKO BIBLIOGRAFIA PROPOSAMENA	23
12.	1. ERANSKINA: Moduluko lanean inplikaturako irakasgaien gai zerrenda	26
13.	2. ERANSKINA: Talde funtzionamendua eta kudeaketa	29

Gida hau arretaz irakurtzea, ulertzea eta ikastaldeetan esangura emateak berebiziko garrantzia du irakaskuntza-ikaskuntza prozesua arrakastaz burutu ahal izateko.

## 1. Irudia

**Small Size Day 2018.** Autorea: Iñaki Insausti.



“Las experiencias complejas recuperan la necesidad de los procesos largos [...] Estas experiencias tienen un plus; no se puede realizar con ellas una exposición final. Estas experiencias se miran a sí mismas, se vuelven reflexivas, críticas ...”

Acaso. (2017, p. 78)

**1. TESTUINGURUA**


<b>Ikastetxea:</b> Vitoria-Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
<b>Moduluaren izena:</b> Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez
<b>Maila:</b> 4. maila <b>Lauhilekoa:</b> Lehenengoa

Gida honetan, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean irakasten den Haur Hezkuntza Graduako 6. Moduluari dagokion diziplinarteko lana aurkezten da. Modulu hau, “Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez”, Haur Hezkuntzako Graduaren laugarren maila osoan irakasten da.

5 irakasgaiek osatzen dute: Hizkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa, Musika Hizkuntza, Gorputz Hizkuntza, Adierazpena eta Komunikazio Trebetasuna, Dramatizazio-adierazpenerako Informazio eta Komunikazio Teknologia.

2. Irudia

5 irakasgaiek osatzen dute **K6 Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez** Diziplinarteko Lana



## 2. MODULUKO IRAKASLE TALDEA

Hizkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa	Ainhoa Gómez-Pintado	<a href="mailto:ainhoa.gomez@ehu.eus">ainhoa.gomez@ehu.eus</a>
Musika Hizkuntza	Itziar Urretabizkaia	<a href="mailto:itziar.urretabizkaia@ehu.eus">itziar.urretabizkaia@ehu.eus</a>
Gorputz Hizkuntza	Saioa Urrutia Gutierrez	<a href="mailto:saioa.urrutia@ehu.eus">saioa.urrutia@ehu.eus</a>
Adierazpena eta Komunikazio Trebetasuna	Eider Sainz de la Maza	<a href="mailto:idersainzdelamaza@ehu.eus">idersainzdelamaza@ehu.eus</a>
Dramatizazio-adierazpenerako Informazio eta Komunikazio Teknologia	Alaitz Tresserras Angulo	<a href="mailto:alaitz.tresserras@ehu.eus">alaitz.tresserras@ehu.eus</a>

## 3. EZAUGARRI OROKORRAK

### 3.1. Lan honen helburua

Moduluko diziplinarteko jardueran (MDJ) Haur Hezkuntzako 1. edo 2. zikloko haurrei zuzendutako eta ikastaldearen aurrean gauzatuko den Proposamen Pedagogikoa diseinatuko da. Horretarako, irakasgai bakoitzean landutako edukiak mobilizatu eta horien arteko loturak ezarri beharko dira. Proposamen pedagogiko honek haurren 100 hizkuntzak (Malaguzzi, 2005) eta jolas dramatikoak (Tresserras, 2017) abiapuntutzat hartuko ditu.

### 3.2. Proiektuari eskaini beharreko dedikazioa

Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez izeneko 6. modulua, 6 ECTS kredituko bost irakasgaiz osatua dago eta 2'4 ECTS kredituko balioa izango du irakasgai bakoitzean, hots, notaren %40a.

Modulu lanak irakasgai bakoitzean 2'4 kredituko lan zama ekarriko du: 24 eskola-ordu eta 36 ikasgelaz kanpoko jarduer-ordu. Beraz, ikasle bakoitzak modulu lanari 120 eskola-ordu eta 180 ikasgelaz kanpoko jarduer-ordu eskaini behar dizkio.

Kredituei dagokienez, eskaini beharreko dedikazioaren laburpena ondoko taulan ikus daiteke:

	Eskola-orduak	Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jarduer-orduak	GUZTIRA
5 Irakasgai x 2,4=12 ECTS	12 kred x10 = 120 ordu	12 kred x15 = 180 ordu	300 ordu

## 4. MODULUAREN BEREZKO KONPETENTZIA

Haur Hezkuntzako graduaren 4. mailako gaitasunak oinarri hartuta, moduluko lanaren bidez honako gaitasuna garatuko da:

Moduluko lanean parte hartzen duten irakasgaien edukiak uztartuz Haur Hezkuntzarako proposamen pedagogikoak diseinatzea, planifikatzea eta gauzatzea.


## 5. IKASKUNTZA-SORKUNTZA PROZESUA

Modulu honetan, adierazpen eta komunikaziorako hizkuntza desberdinen arteko elkarrekintzak jorratuko dira Haur Hezkuntzarako proposamen pedagogiko baten testuinguruan. Ikasturtea amaitzean, ikasleak Haur Hezkuntzarako proposamen pedagogikoak diseinatu, planifikatu eta gauzatzeko gai izango dira.

Lan honen helburua ez da izango modu klasikoan "istorio" bat kontatzea, baizik eta esperimintatzea eta jolastea, bidean sortzen zaizkigun zalantza, begirada edota arazo berriei lekua eginez. Alegia, PROZESUA izango da PROTAGONISTA.

### 3. Irudia

#### Ikaskuntza-sorkuntza prozesuaren irudikapena



## 6. IRAKASLEEK ETA IKASLEEK BURUTU BEHARREKO JARDUERAK

Moduluan parte hartzen duten **irakasle** guztiek ataza hauek burutu behar dituzte:

1. Moduluko lana diseinatu, ezarri eta ebaluatzea.
2. Ikasleei moduluko lanaren diseinua azaltzea.
3. Gaia hautatzen eta baliabide didaktikoak bilatzen orientatzea.
4. Kasuan kasuko atazak egite aldera informazioa bilatzeko tresnak ematea, arlo bakoitzeko ezagutzak eskuratzeko eta gaitasunak garatzeko.
5. Moduluko lan prozesua gainbegiratzea, gutxienez lantalde bakoitzarekin egindako hiru tutoretza saioetan (hasieran, erdian eta lana amaitzean).
6. Moduluko lanak egiteko prozesua koordinatzea.
7. Proposamenaren gauzatzea eta txostena ebaluatzea, errubrikan ezarritako eta ikasleei emandako irizpideen arabera.
8. Beharrezkoa balitz, taldeen funtzionamendu egokian laguntzea.

Prozesu honetan irakasleak bidelagun funtzioa beteko du. Ikasleak orientatzea eta diskurtso kritiko bat garatzen laguntzea izango da bere lana, ikuspuntu anitzak eta aukera berriak ikusaraziz.

Diziplinarteko lan hau ikasgelara modu aktiboan bertaratzen diren ikasleentzat pentsatua dago; taldean eta eskatutako inplikazioa erakutsiz lan egiten dutenentzat. Hala ere, ikasle guztiek diziplinarteko lanaren bitartez eskuratutako gaitasunak erakusteko aukera izango dute: etengabeko ebaluazioa jarraituz gero, lana bakarka eginez, edo etengabeko ebaluazioari uko egin eta azken ebaluazioa aukeratuz gero, diziplinarteko lanari buruzko galdera teoriko-praktikoei erantzunez.

Jarraian, ikasleentzat esanguratsuak diren atazak aipatzen dira:

1. **Moduluko lana taldean egin ahal izateko derrigorrezkoa izango da %85eko partehartze aktiboa.**  
Ezinbestekoa da %85 honen barruan moduluko lanaren oinarritzko jarduera guztietan parte hartzea: fase desberdinen aurkezpenak; tutoretzak; Aste Pedagogikoak; Arte eta Hautzaro Txikia jardunaldiak; entsegu eta prestakuntza saioak; talde guztien gauzatze praktikoak, eta gogoeta eta ebaluazio saioak.
2. **Ekintza edo saio guzti hauetara ez etortzekotan, ebaluazio jarraia aukeratzen duten ikasleek moduluko lana banaka egin beharko dute (espazio birtuala eta gauzatze praktikoa).**  
*Gomendioen gutunean* jasotako oharrei jarraituz, ikasle hauek lehen hilabetean irakasgai bakoitzeko irakaslearen bulegora joan behar dute.
3. Taldearen funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak diren jarraibideak ezarri eta adostutako denbora eta moduan bete. Adibidez, eginkizunen banaketa zuzena.

4. Taldearen funtzionamendua, komunikazioa, ongizatea eta bizikidetasuna bermatzeko jarrera eta jokaera azaldu eta, beharrezkoa balitz, irakasleei laguntza eskatu taldearen kudeaketan.
5. Ezarritako denbora eta datetan beharrezkoak diren zereginak egin: moduluko gida eta bestelako dokumentuak irakurri, atazak entregatu, ebaluazioak berrikusi,...
6. Autonomia, positiboa eta gogoetatsua izan.

OHARRA: Garrantzitsua da proposamena gauzatzen den egunerako taldekide guztien presentzia nola bermatuko den erabakitzea. Nola antolatuko da tekniko lana, aktore/zuzendaritza/animatzaile lana, dokumentazio lana,...? Azken ebaluazioan, autoebaluazioan eta koebaluazioan parte hartze aktiboa derrigorrezkoa da.

## 7. GALDERA ERAGILEAK

Proposamen pedagogikoa arrakastaz burutzeko, zer dakigun eta zer jakin beharko genukeen (edo nahiko genukeen) kontutan hartu. Nahitaezko galdera eragile hauek izan beharko dituzue lanaren ardatz:

**Galdera eragile nagusia:** Zein da hautatuko dugun ABIAPUNTUA eta zein ZIKLOari zuzenduta egongo da gure proiektua? Nola egingo dugu?

**Galdera eragile zehatzak:**

1. Zein motatako HAUR kontzeptualizaziotik abiatzen gara? Nor da HAURRA guretzat?
2. Zer nolako irakasleak izan nahi dugu? Nola ulertzen dugu hezkuntza-harremana? Zeintzuk dira gure erreferente pedagogikoak?
3. Zer dakigu dramatizazioa edo jolas dramatikoaren inguruan?
4. Adierazpen edo jolas dramatikoak zer nolako ekarpena egin diezaioke Haur Hezkuntzari eta irakasleen prestakuntzari?
5. Zein da 100 hizkuntzen eta hezkuntza artistikoaren garrantzia? Hizkuntza desberdinen zein aspektu/gaitasun garatu nahi ditugu? Zergatik?
6. Indarrean dagoen HHko curriculum dekretuak zer dio hauen inguruan?



## 8. EGIN BEHARREKO LANAREN DESKRIBAPENA

Moduluko lana ikasleek osatutako lan-taldetan egingo da (irakasle taldeak zehaztuko ditu irizpideak talde handian dagoen ikasle kopuruaren arabera).

Adierazpen dramatikoak, haurren 100 hizkuntzak eta jolas sinbolikoa dira lan honen oinarri metodologiko nagusiak. Horretarako, esperimentazio eta proiektuaren garapenerako kontsigna desberdinak emango dira: materialen muga, gaiaren aukeraketarako mugak, jolas eta esperimentazioaren bidez inspirazioak bilatzeko aukera, eta abar.

Gaia-abiapuntua hautatzeko **lau aukera:**  
**OBJEKTU BAT; ARTE LAN BAT; ISTORIO BAT; BIZIPEN BAT**

Proposamen pedagogikoa bi produktutan gauzatuko da: espazio birtuala eta gauzatze praktikoa.

**Espazio birtuala:** proposamen pedagogikoaren lan idatzia jasoko du, web orrialde baten egitura eta estetikari egokituta. Bertan, moduluko irakasgai desberdinetan egindako lanak aurkeztuko dira (emangarri desberdinak; ikasle bakoitzaren atala; portafolio indibiduala edo egunerokoa egin behar den irakasgaietan, alegia, ikaskuntza-sorkuntza prozesuaren, gertakizunen, lanen eta bizipenen egunerokotasunaren idatzizko, zein irudizko erregistroa eta hausnarketa irakasgaika; ...).

**Gauzatze praktikoa:** posible bada, ikaskideen aurrean egingo da. Ekintza hau prestatzeko eta burutzeko denbora behar dela aurreikusita, hiru aste pedagogiko antolatzen dira: ikasturteko azken hiru asteak, hain zuzen ere. Hiru aste horietan **eskola-orduen berrantolaketa egingo da** talde bakoitzak entsegu orokorrak burutu ahal izateko eta proposamen praktikoa gauzatzeko. **Edonola, plangintza honek egokitzapenak izan ditzake egoerak hala eskatuko balu.**

Ondoko taulan **jardueren sekuentzia** aurkezten da:

ADIERAZPEN DRAMATIKOKO PROIEKTUAREN JARRAIPENA ETA GAUZATZEA
<p><b>Espazio birtualaren entregak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Kronograman. <b>TXOSTEN IDATZIA</b> (azpimarratuta) dauden atalak jasoko ditu eta espazio birtuala egiteko lehen pausua izango da).</li><li>- Kronograman. Behin behineko <b>ESPAZIO BIRTUALA</b> (20:00ak baino lehen).</li></ul>
<p><b>Gauzatze praktikoa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Kronograman. Proposamenen <b>GAUZATZE PRAKTIKOA</b> eta <b>EBALUAZIOA</b>.</li></ul>

<p><b>Txosten idatzia eta Espazio birtuala</b></p>	<p><b>1. SARRERA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Testuingurua:</b> non gaude? Nortzuk gara?</li> <li>● <b>Abiapuntua:</b> Zein izango da? (objektu, istorio, artelan edo bizipen bat?) Zergatik aukeratu dugu abiapuntu hau?</li> <li>● <b>Justifikazioa:</b> Zergatik eta zertarako haur hezkuntzarako proposamen pedagogiko hau?</li> <li>● <b>Izenburua:</b> Zein da behi behineko proiektuaren izenburua? (erakargarria)</li> </ul> <p><b>2. MARKO TEORIKOA</b></p> <p>Bilatu eta adierazi zuen proiektu pedagogikoaren iturriak: Zertan oinarrituko gara? <b>Proiektuaren erreferente bibliografiko, plastiko-artistiko eta ikus-entzunezkoak (hizkuntz eta kontzeptu desberdinen erreferente pedagogiko eta artistikoak).</b> Ikasgaietan aztertutako informazioaren eta proiektuaren arteko loturak bilatu behar dira, eta diskurtso zientifiko koherentea eraiki aipua txertatuz eta APA arauak erabiliz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Lan idatzia baino lehen eta bitartean:</b> Lantaldeari beharrezkoak izango zaizkion baliabide zein oinarri teorikoa zein ikusizkoak <b>identifikatu, bilatu eta eskuratu.</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Hainbat artikulu/liburu irakurri HHri/adierazpen-dramatikoari buruz eta hizkuntz bakoitzean lantzen diren gakoei buruz (kontzeptuak, edukiak, metodologiak,...).</li> <li>○ Dramatizazio, artelan/ikus-kulturaren eta umeen 100 hizkuntzak lantzen dituzten hezkuntza-esperientzia desberdinak bilatu (ahal bada, oso desberdinak) eta ezaugarriak identifikatu: erabiltzen diren irudi, baliabide, hizkuntza, gorputz adierazpen eta euskarri teknologikoak (kontzeptuak, edukiak, metodologiak,...). Alde pedagogikoa eta estetikoa nabarmendu. Argazkiak/irudiak ere bilatu eta analizatu.</li> </ul> </li> <li>● <b>Lan idatzian islatu behar dena:</b> Zuen proiektuarekin erlazionatuak dauden ideia eta irudi nagusiak jaso eta ildo bat jarraituz modu ordenatu batean idatzi eta aipua txertatu.</li> </ul> <p><b>Nola erlazionatzen da gure proposamena galdera eragileekin?:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Zein motatako HAUR kontzeptualizaziotik abiatzen gara? Nor da HAURRA guretzat?</li> <li>○ Zer nolako irakaslea izan nahi dugu, hau da, hezkuntza-harremana nola ulertzen dugu? Zeintzuk dira gure erreferente pedagogikoak?</li> <li>○ Zer dakigu Dramatizazioa, adierazpen dramatiko edo jolas dramatikoaren inguruan?</li> <li>○ Adierazpen edo jolas dramatikoak zer nolako ekarpena egin diezaiokete Haur Hezkuntzari eta irakasleen prestakuntzari?</li> <li>○ Zein da 100 hizkuntzak eta hezkuntza artistikoaren garrantzia? Hizkuntza desberdinen zein aspektu/gaitasun garatu nahi ditugu? Eta zergatik?</li> <li>○ Indarrean dagoen HHko curriculum dekretuak zer dio hauen inguruan?</li> </ul> <p><b>3. HELBURUAK<sup>1</sup></b></p> <p>Proiektuaren helburuak zehaztu (ebaluagarriak izan behar dira):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● HHko Graduako ikasle eta irakaskuntza-planak kontutan hartuta.</li> <li>● Haur eskola bateko irakasle bezala, helburu didaktikoak indarrean dagoen HHko Oinarritzko Curriculum Diseinua kontutan hartuta.</li> </ul>
--	---

<sup>1</sup> “Los objetivos están vinculados con las intenciones del profesor, que es el sujeto de acción, siendo declaraciones generales que indican contenidos fundamentales, enfoques y propósitos de la asignatura o programa. Los resultados de aprendizaje, por el contrario, están directamente relacionados con el estudiante y sus logros, siendo evaluables y observables. Respecto a las competencias, la línea divisoria entre estas y los resultados de aprendizaje no está siempre clara y depende, en numerosas ocasiones, del contexto en el que se utilicen ambos términos. Así, mientras las competencias utilizan verbos de carácter general, no hacen referencia a contenidos concretos a trabajar y su propia generalidad no posibilita una direccionalidad evaluable clara; los resultados de aprendizaje, por el contrario, están redactados de manera definida y específica con verbos de carácter concreto y con contenidos específicos de la asignatura, de manera que sean evaluables y verificables, sin ambigüedades interpretativas, para permitir verificar de qué forma se desarrollan las competencias” (Nava, Pazos, De la Cruz, y Sánchez-Oro, 2014, p. 12).

<p><b>Txosten idatzia</b></p> <p><b>eta</b></p> <p><b>Espazio birtuala</b></p>	<p><b>4. PROIEKTU PEDAGOGIKOA</b></p> <p><b>4.1.-Proposamenaren deskribapena.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Antzezpena bada: Zer gertatuko da? Non eta noiz gertatzen da? Oztupoak daude istorioan? Inflexio momentuak? Istorioa, ekintzak, espazio eta denbora.</li> <li>• Bestelako proposamena bada: espazio eta materialen diseinua/deskribapena, ekintzaren deskribapena, zer egingo da momentu desberdinetan, ...</li> <li>• Bietan: ze nolako rolak eta interakzioak proposatzen dira?</li> </ul> <p><b>4.2. Pertsonaien/parte-hartzaileen deskribapena.</b></p> <p>Pertsonaiak/partehartzaileak nolakoak dira eta zein ezaugarri dituzte (deskribapen fisikoak, psikologikoak, mugitzeko modu bereziak, edo ahoskera, tonua, ...), zein da euren funtzioa, euren arteko harremanak, intentzioak, helburuak eta abar.</p> <p><b>4.3. Proposamen eszenikoaren justifikazioa eta hausnarketa.</b></p> <p>Proposamenaren esanahiak eta honen asmoen/helburuen hausnarketa jaso (mezua, estetika, e.a.). Proposamenak helburuekin bat egin behar du. Marko teorikoko erreferenteak berreskuratu zuen argudioak/proposamenak indartzeko eta, beharrezkoa balitz, berriak bilatu.</p> <p>Helburua da <b>aukera eszenikoen instrumentalizazioa ekiditea eta hausnarketa baten bitartez ondo justifikatzea hartutako erabaki pedagogiko-artistikoak</b>. Horretarako, hurrengo galdera eragileei erantzun beharko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zeintzuk dira proposamenaren eta bere elementuen oinarri teorikoak?</li> <li>• Zeintzuk dira erabilitako inspirazio iturriak? (Argazkiak ere txertatu eta zuen produkzioekin loturak eraiki)</li> <li>• Zergatik (eta zertarako) hautatu dituzue? Zer lortzeko? Orokorrean, zein da zuen proposamenen zentzua?</li> <li>• Lehen aipatu dituzuen helburuak lortu dituzue? Nola?</li> </ul> <p><b>Materialak eta baliabide teknikoak:</b> Proiekturako beharko ditugun materialak, irudiak, baliabide teknikoak, musika, argia, efektu bereziak, pertsonaien jantziak, osagarriak, eta abar. Hautaketa hauetan kontutan eduki zeintzuk izan diren proposamena eraikitzeke erabili duzuen justifikazioa.</p> <p><b>4.4. Gauzatzearen gidoia.</b></p> <p>Egindako proposamenaren arabera, hurrengo alderdiak zehaztu behar dira, kontutan edukiz hauek izango direla zuen gauzatze praktikoa gidatuko dutenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ekitaldiak, agerraldiak edo gauzatzearen une</b> edo atal ezberdinak, eta hauen tituluak eta iraupenak.</li> <li>• <b>Elkarrizketak</b> (hitzezko hizkuntza balego).</li> <li>• <b>Akotazioak</b> (hau da, ekintza guztien deskribapenak eta nola doazen aldatzen agerraldi edo une bakoitzaren arabera): proposamen eszenografikoa (espazioa eta tokiaren deskribapena, hondoa, objektuak, argiztapena...); musika/soinuak; pertsonaien ingurukoak -zenbat pertsonaia/partehartzaile daude; nondik eta nola sartu eta ateratzen dira partehartzaileak eszena bakoitzean; nolako da tonua; nolakoak dira mugimendu eta ibilbide ezberdinak; ze nolako ekintzak egiten dituzte; partehartzaileen barnean gertatzen dena (nola sentitzen diren, barne pentsamenduak, intentzioak, desioak, etab.); objektuen manipulazioa; ikusleen partehartzea (baldin balego) edo publikoarekiko harremanak; e.a.</li> </ul> <p><b>5. EBALUAKETA ETA ONDORIOAK.</b></p> <p>(Marko teorikoan jasotako zenbait erreferentzia hona ekar ditzakegu gure iritziak indartzeko). Atal honetan hauek garatu beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Prozesua eta emaitzarekin gertatutakoa:</b> prozesuan zein produktuan.</li> </ul>
--	--

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Zer genekien eta zer ikasi dugun:</b> taldeko hausnarketa. Honetarako 2. eranskina (talde funtzionamendua eta kudeaketa) lagungarria izango duzue. (Horrez gain, banakako hausnarketa egingo duzue irakasleren batekin, nahiz eta txosten idatzian ez bildu).</li> <li>• <b>Hobetzekoak edo aldatzekoak:</b> zer egingo zenukete beste modu batean eta zergatik.</li> </ul> <p><b>6. BIBLIOGRAFIA-WEBGRAFIA.</b></p> <p>Marko teorikoan aipatutako autore guztiak hemen agertuko dira. Marko teorikoa eraikitzeko aztertu dituzuen artikulak, liburuak, erreferente artistiko/plastikoak eta ikus-entzunezkoak jasoko dira lanaren bukaeran (APA 7. arauak jarraituta).</p> <p><b>7. ERANSKINAK.</b></p> <p>Proiektua diseinatzeko prozesuaren dokumentazioa: argazkiak (garrantzitsuenak testuan bertan txertatu eta bestelakoak eranskinetan), bideoak, aktak, entseguetako erregistroak, ...</p>
<p><b>Proiektuaren gauzatze praktikoa, grabazioa eta balorazioa</b></p>	<p><b>Proiektu pedagogikoaren gauzatze praktikoa, grabazioa eta balorazioa.</b> <i>(Testuinguruak prozesu hau eragozten ez duen heinean)</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lantalde bakoitzak gainerako ikaskideen aurrean gauzatu edota antzeztuko du bere proiektua klaseetako azken astean. <b>Gehienez, 15 minutuko iraupena izango du</b> eta irakasle taldeak grabatuko du.</li> <li>• Ikasle eta irakasleen balorazioa: prozesua eta azken produktuak.</li> </ul>

### 8.1. Proiektuaren txosten idatzia (1. emangarria)

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ebaluaketa jarraiari erantzunez, 1. emangarria den proiektuaren txosten idatziaren feedbacka emango zaie ikasleei, ebaluaketa hezitzailearen irizpideak jarraituz eta arazoan ebazpenerako ikasleen autonomia bultzatuz. Azken emangarria den espazio birtualaren gauzatzerako, ezinbestekoa da, ebaluaketa honetan irakasle taldeak egiten dituen ekarpenak txertatzea.

1. emangarri hau **irakasleen 5 helbide elektronikoetara bidali behar da PDF eta Word formatuetan “ABIAPUNTUA eta TALDEAREN IZENA”** ipiniz (dokumentuan zein mezuaren gaian, adibidez: HOSTOAREN DESIOA\_MONKIS). Hau modu egokian egin ezean kalifikazioan eragina izan dezake. **Emateko eguna ikasturteko kronograman zehazten da.**

Lan guztiak alderdi formal hauek bete behar dituzte:

- Azal-orria: fakultatearen logoa; taldearen izena; kideen abizenak eta izenak modu alfabetikoan ordenatuta; proiektuaren behin behineko izenburua; data.
- Aurkibidea
- Formatua:
  - Letra mota: Times New Roman.
  - Neurria: 12.
  - Lerroarte: 1’5.
  - Paragrafoen antolaketa: justifikatuta (eskuinean eta ezkerrean lerrokatuta) eta 1,25eko koskarekin paragrafoaren hasieran.
- Lanaren luzera: 10-15 folio.

- Orriak zenbatuta (azal-orria kenduta).
- Aipamen bibliografikoak: APA arauen 7. edizioari jarraitu behar zaio.

## **8.2. Proiektuaren espazio birtuala (amaierako emangarria)**

Espazio birtualaren eraikuntza eta diseinua, txosten idatzia oinarri hartuta, modu autonomo eta kolektiboan gauzatuko da. Ikaskuntza-sorkuntza prozesua, batez ere, *Dramatizazio Adierazpenerako Informazio eta Komunikazio Teknologia* irakasgaitik lagunduko da. Irakaslea, sortzen diren arazoak ebazten bidelagun izango da, uneoro, ikasleen autonomia, sorkuntza eta ardura sustatuz.

**Espazio birtualaren esteka (hiperbinkulua sortuta) irakasleen 5 helbide elektronikoetara bidaliko da,** emailaren gaian **“ABIAPUNTUA eta TALDEAREN IZENA”** zehaztuz (adibidez: HOSTOAREN DESIOA\_MONKIS). Hau modu egokian egin ezean kalifikazioan eragina izan dezake.

**Emateko eguna ikasturteko kronograman zehazten da.**

OHARRA: nahiz eta espazio birtual honetan irakasgai desberdinetan egindako lanak jaso, modulan proiektu pedagogikoaren inguruko lana ebaluatuko da soilik, irakasgai bakoitzaren eskuetan utziz bere atal zehatzaren ebaluazioa.

## 9. EMANGARRIEN KRONOGRAMA ORIENTAGARRIA

HAUR HEZKUNTZAKO K6 MODULUKO LANEN KRONOGRAMA ORIENTAGARRIA	
<b>AURREZAGUTZAK-TALENTOAK ANTOLATU</b>	
<b>1. astea</b> (2024-IX-9tik 13ra)	<b>Irakasgaien aurkezpenak.</b> <b>Taldeak osatu.</b>
<b>ANTOLATU-EZAGUTZA GARATU-ESPERIMENTATZEN HASI</b>	
<b>2. astea</b> (2024-IX-16tik 20ra)	<b>IRAILAK 16 astelehena, modulu-gidaren aurkezpena, ulermena eta taldean esangura eman.</b> <b>Behin betiko taldeak eratu.</b> <b>Erreferente pedagogiko eta artistikoak bilatzen hasi.</b> (IKT) 3. Ikaskuntza-eszenatokiaren 1. mugimendua <i>“Internetek ez gaitu jada zoriontsu egiten”</i> . Dokumentazio pedagogikoaren bitakora-kuadernoan 1. ebidentzia. EMANGARRIA.
<b>EZAGUTZA GARATU-ESPERIMENTATU</b>	
<b>3. astea</b> (2024-IX-23tik 27)	<b>Erreferente pedagogiko/artistiko/plastikoen bilaketa eta azkerketa.</b> (IKT) 1. ikaskuntza-eszenatokiaren 1. mugimendua <i>“Adimen-Artifizialak ezingo du inoiz lore bat egin”</i> . <i>Nire haurtzaro txikia lehenengo eta lehenago</i> , 2 minutuko ikus-entzunezko narratiba. EMANGARRIA eta taldean eszena bat aukeratu.
<b>4. astea</b> (2024-IX-30etik X-4ra)	<b>Erreferente pedagogiko/artistiko/plastikoen bilaketa eta azterketa.</b> (KOMUNIKAZIOA). Astelehena: 1. ANTZEZPENA. Antzerki foroaren lehenengo proposamena.
<b>ABIAPUNTUAREKIN ESPERIMENTAZIOA</b> <b>XV. ARTE ETA HAURTZAROA TXIKIA JARDUNALDIAK.</b> <b>(Urriak 07-08, espazio eta ordutegi berezia)</b>	
<b>5. astea</b> (2024-X-7tik 11ra)	<b>ZEHATZTU idatziz proiektu pedagogikoaren abiapuntua (istorioa, bizipena, artelana edo objektua).</b> (GORPUTZA). EMANGARRIA. Ipuin motorra zirriborroa. (ARTE). Aztertutako artikularen mapa kontzeptualak eta ideien AURKEZPENA.
<b>ESPERIMENTATZEN JARRAITU, SORTU ETA EKOIZTU</b>	
<b>6. astea</b> (2024-X-14tik 18ra)	(ARTE). Aztertutako artikularen mapa kontzeptualak eta ideien AURKEZPENA. Ekitaldi I-eko Talde karpetaen AURKEZPENA <b>URRIAK 18, EMANGARRIA: proiektu pedagogikoaren txosten idatzia irakasle guztiei bidali.</b>
<b>7. astea</b> (2024-X-21etik 25era)	(ARTEA) Ekitaldi I-eko Talde karpetaen AURKEZPENA (IKT). 2. ikaskuntza-eszenatokiaren mugimendua <i>“Hezkuntza eta drama, ez da pentsatzen duzuna!”</i> Arkitektura birtualaren lehen proposamen hezitzaile, estetiko eta funtzionala. AURKEZPENA ETA EMANGARRIA. (MUSIKA). Ikasleen aurkezpenak: <i>“Gorputz-partitura”</i> . Talde bakoitzak aukeratutako musika piezarekin istorio bat kontatuko du, musikaren ezaugarri ezberdinak gorputzuz, hitza erabili gabe. Partitura hau besteen aurrean aurkeztuko da eta honen ezaugarri eta edukiak idatziz jasoko dira. AURKEZPENA ETA EMANGARRIA
<b>8. astea</b> (2024-X-28etik 31era) Azaroak 1 jai eguna	(GORPUTZA) Ikasleen aurkezpenak. Ipuin motorra (KOMUNIKAZIOA). Astelehena: 2. ANTZEZPENA. ANTZERKI foroaren bigarren proposamena.

ETENGABEKO EBALUAKETA, HOBEKUNTZA ETA EKOIZPEN GARAIA	
<b>9. astea</b> (2024-XI-4tik 8ra)	(GORPUTZA) Ikasleen aurkezpenak. Ipuin motorra <b>AZAROAK 5 asteartea, irakasle taldearen FEEDBACK-SAIOA: 1go fasearen balorazioa eta 2. fasearen aurkezpena.</b>
<b>10. astea</b> (2024-XI-11tik 15era)	(ARTEA). Ekitaldi II-ko Performance eta instalazioen esperimazioen GAUZAKETA (GORPUTZA) Ikasleen aurkezpenak. Ipuin motorra (MUSIKA). Ikasleen aurkezpenak: "Ipuin musikatua". Talde bakoitzak aukeratutako ipuinaren aurkezpena egingo du melodia, musika-instrumentu eta sonorizazio ezberdinak erabiliaz. Lan honen prozesua eta zergatiak idatziz jasoko dira. AURKEZPENA ETA EMANGARRIA.
<b>11. astea</b> (2024-XI-18tik 22ra)	(ARTEA). Ekitaldi II-ko Performance eta instalazioen esperimazioen GAUZAKETA (GORPUTZA) Ikasleen aurkezpenak. Ipuin motorra (IKT) 1. ikaskuntza-eszenatokiaren 2. mugimendua "Adimen-Artifizialak ezingo du inoiz lore bat egin". Eta nor naiz orain?, 2 minutuko ikus-entzunezko narratiba. EMANGARRIA.
<b>BIZIPEN ETA PARTEKATZE GARAIA. ASTE PEDAGOGIKOA-ENTSEGU OROKORRAK</b> Irakasle taldearen balorazioa: hobekuntza proposamenak behin betiko espazio birtualari.	
<b>12. astea</b> (2024- XI-25tik 29ra)	<b>Aste Pedagogikoa: entsegu orokorrak</b> (KOMUNIKAZIOA). Astelehena: AZKEN ANTZEZPENA eta foroa publikoarekin. <i>Oharra: egun hau K6 entseguetarako beharrezkoa balitz, lehentasuna dauka eta ikasgaiaren azken antzezpena eta publikoarekin foroa aparteko eta guztien artean adostuko genukeen egun batean egin beharko litzateke.</i>
<b>13. astea</b> (2024-XII-4tik 8ra) 6 jai egunak	<b>Aste Pedagogikoa: entsegu orokorrak.</b>
<b>14. astea</b> (2024-XII-9tik 13ra)	<b>Aste Pedagogikoa: entsegu orokorrak.</b> Irakasle taldearen balorazioa: hobekuntza proposamenak behin behineko espazio birtualari.
<b>AZKEN ENTSEGU OROKORRAK - GAUZATZE PRAKTIKOA ETA BALORAZIOA – EBALUAKETA</b> EMANGARRIA. Proiektu pedagogikoaren behin betiko Espazio birtuala.	
<b>15. astea</b> (2024-XII-16tik 20ra)	<b>Aste Pedagogikoa: entsegu orokorrak.</b> <b>Gauzatze praktikoak eta ebaluazioa.</b>
<b>16.astea</b> Ez lektiboa: azterketa asteak	(KOMUNIKAZIOA). Irakasgaiaren behin betiko memoria/erregistroa. + Galdetegi/gogoeta indibidualak. EMANGARRIA. (ARTE). Lan guztien behin betiko entrega (GORPUTZA) Lanen entrega. (IKT) 1. ikaskuntza-eszenatokia "Adimen-Artifizialak ezingo du inoiz lore bat egin". Behin-betiko proiektu biografiko-profesionala hiru mugimenduak integratzen. EMANGARRIA. (IKT) 3. ikaskuntza-eszenatokia "Internetek ez gaitu jada zoriontsu egiten". Dokumentazio pedagogikoaren bitakora-kuadernoa edo portafolioa, eta portafolio digitala (hautazkoa). EMANGARRIA. (MUSIKA). Irakasgaiaren inguruko portafolioaren entrega (bakarkakoa). EMANGARRIA <b>K6 azterketa egun ofizialean.</b> <b>EMANGARRIA: Proiektuaren behin betiko espazio birtualaren esteka bidali 20.00ak baino lehen.</b>

## 10. MODULUKO LANAREN EBALUAZIOA

Moduluko lanaren kalifikazioa irakasgaiko kalifikazioaren % 40a izango da. Kalifikazio hori moduluko irakasleek adostuko dute eta diziplina bakoitzeko ebaluazioari batuko zaio. Ebaluazioan taldearen lana eta prozesua balioztatuko da, ez bakarrik emaitza.

Etengabeko ebaluazioa eta azken ebaluazioa izango dira erabiliko diren sistemak .

### 10.1. Etengabeko ebaluazioa

Etengabeko ebaluazioa aukeratzen duten ikasleek gidan zehaztutako Haur Hezkuntzarako proiektu pedagogiko baten espazio birtuala eta gauzatze praktikoa burutu eta lan-kronograma jarraitu beharko dute. Bi aukera daude hau burutzeko: taldeka edo banaka.

Aurreko atal batean aipatzen den bezala (ikus 6. atala), diziplinarteko talde-lana ikasgelara etortzen diren eta modu aktibo batean -eskatutako inplikazioa erakutsiz-, parte hartzen duten ikasleentzat proposatzen da.

Moduluko lanaren kalifikazioa berdina izango da taldeko ikasle guztientzat. Hala ere, **taldeko ikasle batek eskatutako eginkizun guztiak beteko ez balitu, bere kalifikazioan eragina izango luke.**

Balitzko egoerak 2. deialditik aurrera:

- *Moduluko lana suspendituta eta irakasgaia gaituta:* irakasgai bakoitzeko irakasleek erabakitzen dute moduluko lana irakasgaia gaitutzeko giltzarria den edo ez.
- *Moduluko lana gaituta eta irakasgaia suspendituta:* moduluko lanaren emaitza ez ohiko deialdira arte soilik gordeko da eta irakasgaiko azterketa egingo da berriro.
- *Moduluko lana eta irakasgaia suspendituta:* ez ohiko deialdiko azterketan, irakasgaiko azterketaz gain, moduluko lanean hobetu daitezkeen alderdiak edo edukiak berriz egingo dira.

### 10.2. Azken ebaluazioa

Etengabeko ebaluazioari uko egin eta azken ebaluazioa aukeratuz gero, diziplinarteko lanari buruzko azterketa teoriko-praktiko bat egin beharko da.

### 10.3. Ez-ohiko deialdia

Ez-ohiko deialdian irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da.



#### 10.4. Ebaluazio errubrika

GAUZATZE PRAKTIKOAREN ERRUBRIKA				
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	Hobetu behar (0-4.99)	Onargarria (5-6.99)	Lan ona (7-8.99)	Lan bikaina (9-10)
<b>1. Proiektuaren koherentzia</b>	Ez dago koherentziarik ahozko adierazpena, adierazpen plastikoa eta ikusizko, musika, gorputz adierazpena eta teknologia-baliabideen artean. Ez dago sekuentzien arteko koherentziarik ezta trantsiziorik ere.	Ahozko adierazpena, adierazpen plastikoa, musika, gorputz adierazpena eta teknologia-baliabideak koherenteak dira orokorrean. Inkoherentzia puntualak daude. Sekuentzien arteko koherentzia eta trantsizioak une batzuetan agertzen dira bakarrik.	Ahozko adierazpena, adierazpen plastikoa, musika, gorputz adierazpena eta teknologia-baliabideen arteko loturak oso landuak dira. Ez dago inolako inkoherentziarik. Sekuentzien arteko koherentzia dago eta trantsizioak une gehienetan agertzen dira.	Ahozko adierazpena, adierazpen plastikoa, musika, gorputz adierazpena eta teknologia-baliabideen arteko loturak guztiz koherenteak dira; are gehiago, beste espresabideak erabili dira koherentzia osoa mantenduz. Sekuentzien arteko koherentzia dago eta trantsizio guztiak egin dira.
<b>2. Sormena</b>	Ez dago orijinaltasunik. Berritzaileak ez diren eta itxiak diren proposamenak aurkeztu dira. Elaborazioari dagokionez, proiektuak ez du izan inongo eraldaketarik/hobekuntzarik izan, hasieratik planteatutakoa da eta ez da prozesu bizi bat izan.	Orijinaltasun gradu txikia dago. Aspektu gehienetan, berritzaileak ez diren eta itxiak diren proposamenak aurkeztu dira. Elaborazioari dagokionez, proiektuak eraldaketa/hobekuntza gutxi batzuk izan ditu, baina ez da prozesu bizi bat izan. Ideia eta hobekuntza gehienak ez dira zuzenak izan edota ez dira modu autonomoan sortu/berregin.	Orijinaltasun nabarmena dago. Proposamen berritzaileak eta irekiak egiteko saiakerak egin dira baina ez da guztiz lortu. Elaborazioari dagokionez, proiektuak eraldaketa ugari izan ditu eta prozesu bizia izan da. Ideia eta hobekuntza gehienak zuzenak izan dira eta modu autonomoan sortu/berregin dira.	Orijinaltasun handia dago. Proposamen berritzaileak eta irekiak egin dira. Elaborazioari dagokionez, proiektuak eraldaketa ugari izan ditu eta prozesu bizia izan da. Ideia eta hobekuntza guztiak zuzenak izan dira eta modu autonomoan sortu/berregin dira.
<b>3. Ahozko adierazpenaren erabilpen egokia</b>	Ez ditu transmisiorako hitz/adierazpen egokiak erabili. Ez du ondo ahoskatzen, trabatu egiten da, ez du proiektatzen, edota ez du emoziorik transmititzen.	Akats morfosintaktikoren bat egiten du, lexikoa ez da beti egokia, edo jarioasuna hobetu daiteke. Ez du beti ondo ahoskatzen, batzuetan trabatu/ito egiten da, edo ez du emozio askorik transmititzen.	Akats morfosintaktikorik ez du egiten, lexiko egokia darabil, jarioasunez ari da. Oso ondo ahoskatzen du, ez da trabatzen/itotzen, eta emozioak transmititzen ditu.	Ez du akats morfosintaktikorik egiten, lexiko egokia darabil, eta jarioasun handia du. Bikain ahoskatzen du, ez da trabatzen/itotzen, eta emozioak erraz transmititzen ditu.

GAUZATZE PRAKTIKOAREN ERRUBRIKA				
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	Hobetu behar (0-4.99)	Onargarria (5-6.99)	Lan ona (7-8.99)	Lan bikaina (9-10)
<p><b>4.</b> <b>Gorputz adierazpenaren erabilpen egokia, gorputzaren mugimenduak eta adierazkortasuna</b></p>	<p>Gorputzaren jarrerak eta mugimenduek ez dute asko komunikatzen. Ez du espazioaren erabilera egokia egiten. Mugimendu partiturarik ez du erabiltzen. Inongo koreografiarik ez da agertzen. Talde-entzutea ez da gauzatu.</p>	<p>Gorputzaren jarrerak, aurpegiaren adierazpenak eta keinu eta mugimenduek batzuetan komunikatzen dute gertatzen dena eta beste batzuetan ez. Espaziotik ondo mugitzen da, eroso, baina kostatzen zaio mugimenduarekin gauzak adieraztea, eta gutxienez 3 lekualdaketa ematen dira. Partehartzaileen artean keinuzko 2 hartu-eman ematen dira, baina ez daude oso koordinatuta. Koreografia txiki bat agertzen da, baina ez da guztiz bat etortzen musikarekin edo ez du zerikusirik azaldutako irudiarekin.</p>	<p>Gorputzaren jarrerak, aurpegiaren adierazpenak eta keinu eta mugimenduek oso ondo komunikatzen dute gertatzen dena, sentimenduak eta emozioak adierazten dituzte. Espaziotik oso ondo mugitzen da, ondo kokatzen du bere burua, eta mugimenduarekin nahi duena adieraztea lortzen du. Partehartzaileen artean keinuzko 2 hartu-eman ematen dira, eta koordinatuta daude. Koreografia txiki bat agertzen da, musikarekin bat dator eta zentzua du adierazpen horretan.</p>	<p>Gorputzaren jarrerak, aurpegiaren adierazpenak eta keinu eta mugimenduek oso ondo transmititzen dute egoera horretan gertatzen dena, sentimenduak eta emozioak bikain adierazten ditu (hitz egin gabe ere ulertu daiteke adierazten dutena). Espaziotik erraz mugitzen da, eroso sentitzen da, disfrutatzen du mugimenduarekin, emozioak eta ekintzak adieraziz. Partehartzaileen artean keinuzko 2 hartu-eman ematen dira, koordinatuta daude, eta gainera orijinalak dira. Koreografia txiki bat agertzen da, musikarekin bat dator eta antzezpenean ekarpen bikaina da.</p>
<p><b>5.</b> <b>Adierazteko eta komunikatzeko trebetasuna</b></p>	<p>Partaide guztien edo batzuen ahozko adierazpena monotonoa eta adierazpenik eta intentsiorik gabekoa da. Ez du emoziorik transmititzen. Ahotsa ez doa bat gorputzak adierazten duenarekin. Ahotsa ez du ondo erabiltzen (bolumena, erritmoa, pausak, intonazioa, tonua, proiektzioa eta abar).</p>	<p>Partaideen ahozko adierazpenak sentimendu eta emozio gutxi adierazten du. Ahotsa eta gorputzaren komunikazioen artean koherentzia dago baina ez une guztietan. Ahotsa une gutxietan erabiltzen du ondo (bolumena, erritmoa, ...).</p>	<p>Partaideen ahozko adierazpenak intentsioak, emozioak eta abar adierazten ditu orokorrean, baina ez beti. Ahotsak eta gorputzak elkarri laguntzen diote tarteka. Ahotsa oso ondo erabiltzen du (bolumena, erritmoa..).</p>	<p>Partaideen ahotsak kolore anitz dituzte, era guztietako intentsioak, emozioak eta abar adierazten ditu. Ahotsak eta gorputzak igortzen dituzten mezuak elkarren osagarri eta indargarriak dira. Ahotsa bikain kudeatzen du (bolumena, erritmoa ...).</p>

<b>GAUZATZE PRAKTIKOAREN ERRUBRIKA</b>				
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>	<b>Hobetu behar (0-4.99)</b>	<b>Onargarria (5-6.99)</b>	<b>Lan ona (7-8.99)</b>	<b>Lan bikaina (9-10)</b>
<b>6. Musika Hizkuntzaren erabilpen egokia</b>	Ez da ez soinu-efektu ez musika lanik erabili ideiak eta emozioak adierazteko. Ez dira entzuketa musikalaren elementuak landu (intentsitatea, altuera, iraupena, abiadura, tinbrea...).	Soinu-efektuak edo musika-lanak ideiak eta emozioak adierazteko erabili dira. Entzuketa musikalaren elementu bat edo gehiago txertatu da lanean.	Soinu-efektuak eta musika-lanak ideiak eta emozioak adierazteko erabili dira. Entzuketa musikalaren elementu bat edo gehiago koherentziarekin txertatu da lanean.	Soinu-efektu eta musika-lanen erabilera ideiak eta emozioak adierazteko erabili dira, eta horien aplikazioa oso esanguratsu izan da. Entzuketa musikalaren elementu bat baino gehiago jorratu da, eta horiek koherentzia handiz txertatu dira lanean zehar, helburu komunikatibo batekin.
<b>7. Adierazpen plastikoa eta ikusizkoaren erabilpena</b>	Adierazpen plastikoa eta ikusizkoa tresna soila bezala erabili da, honen aukera artistiko-espresiboak aprobetxatu gabe. Ez da proiektuan agertzen izaera propioa duen adierazpen bide bezala. Egindako proposamenek ez dute proiektuaren helburuekin bat egiten. Elementuen eta baliabideen arteko konbinazioa eta erlazioa ez da zuzena. Baliabideak (materialak, tresnak, euskarriak eta teknikak)/proposamenak ez dira ondo hautatu eta konbinatu edo bakarra erabili da. Ez dago originaltasunik edo proposamen guztia estereotipatua da. Estetika ez da zaindu.	Adierazpen plastikoa eta ikusizkoa tresna soila bezala erabili da gehienetan, honen aukera artistiko-espresiboak aprobetxatu gabe. Proiektuan izaera propioa duen adierazpen bide bezala agertzen da soilik batzuetan. Egindako proposamen gutxi batzuk proiektuaren helburuekin bat egiten. Elementuen eta baliabideen arteko konbinazioa eta erlazioa zuzena da gehienetan. Baliabideak (materialak, tresnak, euskarriak eta teknikak)/proposamenak ondo hautatu eta konbinatu dira bat baino gehiago hautatuz. Zenbait aspektutan originaltasuna dago. Estetika zaindu da.	Adierazpen plastikoa eta ikusizkoa izaera propioa duen adierazpen bide bezala agertzen da gehienetan, honen aukera artistiko-espresiboak aprobetxatuz. Egindako proposamen gehienek proiektuaren helburuekin bat egiten dute eta garrantzitsuak dira hauek lortzeko. Elementuak eta baliabideak egoki konbinatu eta erlazionatu dira. Baliabideak (materialak, tresnak, euskarriak eta teknikak)/proposamenak askotarikoak dira eta ondo hautatu eta konbinatu dira, baina akatsen bat egon da. Orokorrean proposamena originala da eta estetika oso zaindua dauka.	Adierazpen plastikoa eta ikusizkoa izaera propioa duen adierazpen bide bezala agertzen da, honen aukera artistiko-espresiboak aprobetxatuz. Egindako proposamen guztiek proiektuaren helburuekin bat egiten dute eta ezinbestekoak dira hauek lortzeko. Elementuak eta baliabideen arteko konbinazioa guztiz zuzena eta eraginkorra da. Oso ondo hautatu eta konbinatu diren baliabide/proposamen desberdinak eta berritzaileak erabili dira. Oso proposamena originala eta estetika oso zainduarekin.

<b>GAUZATZE PRAKTIKOAREN ERRUBRIKA</b>				
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>	<b>Hobetu behar (0-4.99)</b>	<b>Onargarria (5-6.99)</b>	<b>Lan ona (7-8.99)</b>	<b>Lan bikaina (9-10)</b>
<b>8. Informazio eta Komunikaziorako Teknologien erabilpena</b>	Teknologia-baliabideak prozesu eta proiektu-sortzailearen oztopo bihurtu dira. Baliabideen erabilpen desegokia egin da edota Haur Hezkuntzaren helburu pedagogikoekin ez da bat etorri.	Teknologia-baliabideak ez dira izan prozesu eta proiektu-sortzailearen oztopo, baina hobetzeko gauzak daude. Baliabideen erabilpena egokia izan da, baina proiektu, zein Haur Hezkuntzaren helburu pedagogikoei dagokionez hobetu daiteke.	Teknologia-baliabideak prozesu eta proiektu-sortzailean ondo integratu dira eta berau lagundu dute. Baliabideen erabilpena anitza eta egokia izan da proiektu, zein Haur Hezkuntzaren helburu pedagogikoei dagokionez.	Teknologia-baliabideak prozesu eta proiektu-sortzailean guztiz integratuta egon dira eta laguntza handia izan dira. Baliabideen erabilpena anitza eta berritzailea izan da, eta Haur Hezkuntzaren helburu pedagogikoak sustatu ditu.

<b>PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAREN ERRUBRIKA: ESPAZIO BIRTUALA ETA LAN IDATZIA</b>				
<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>	<b>Hobetu behar (0-4.99)</b>	<b>Onargarria (5-6.99)</b>	<b>Lan ona (7-8.99)</b>	<b>Lan bikaina (9-10)</b>
<b>1.</b> <b>Alderdi formal orokorrak: aurkezpena eta estetika</b>	Aurkezpen eskasa. Eduki antolatu gabea, tituluak eta baliabide tipografikoak erabiltzean akatsak eginez. Aurkibiderik/menurik ez dago barne-egitura gidatzeko edo, dagoenean, ez da egokitzen barne-egiturarekin. Argazkien tratamendua ez da zuzena (kalitatea, idatzizkoarekin erlazioa, tamaina, ...)	Aurkezpen onargarria. Edukia asko antolatua du, tituluak eta baliabide tipografikoak erabiltzean akatsen bat eginez. Badago aurkibidea/menua, barne-egitura gidatzeko, nahiz eta batzuetan barne-egiturarekin bat ez etorri. Argazkien tratamendua zuzena (kalitatea, idatzizkoarekin erlazioa, tamaina, ...) baina ez da erakargarria.	Aurkezpen ona. Eduki aski antolatua, egituratzeko tituluak eta baliabide tipografikoak erabiliz. Aurkibidearen/menuaren atal gehienak garatzen dira eta barne-egiturari egokitzen zaizkio. Argazkien tratamendua zuzena (kalitatea, idatzizkoarekin erlazioa, tamaina...) eta erakargarria da.	Aurkezpen bikaina. Edukia ongi antolatua, egituratzeko titulu eta baliabide tipografikoak erabiliz. Agertzen den aurkibideari/menuari eusten zaio txostenaren barne-egituran zehar. Argazkien tratamendua oso zuzena (kalitatea, idatzizkoarekin erlazioa, tamaina...) eta erakargarria da.
<b>2.</b> <b>Idatzizko hizkuntzaren erabilpen egokia: gaitasun linguistikoa, diskurtsiboa eta soziolinguistikoa</b>	Terminologia desegokia. Ortografia-akats larriak eta ohikoak. Idazkera nahasia, sintaxi traketsa. Egitura akats larriak. Loturarik gabeko ideiak eta esaldiak. Informazio desegokia hautatu da. Kohesio akats larriak. Erregistroa ez zaio egokitzen komunikazio-egoerari.	Terminologia batzuetan ez da zuzena, eta gramatika- edo ortografia-akatsen bat badago. Sintaxia eta idazkera batzuetan ez dira zuzenak. Egitura errore arinak, testuaren garapena eta ulergarritasuna oztopatzen ez dutenak. Ideiak eta esaldiak ondo lotuak, arazoren bat baina, ulergarria da diskurtsoa. Informazio egokia hautatu da, garrantzirik gabeko gabeziaren bat. Erregistroa gehienetan egokitzen zaio komunikazio-egoerari.	Terminologia gehienetan zuzena da, eta ortografia- eta gramatika-akats gutxi batzuk egon arren (5 baino gutxiago), ez dira larriak. Txostenaren sintaxia, oro har, zuzena da. Diskurtsoa ondo antolatu da. Ideiak eta esaldiak ondo lotuak. Egokia da hautatu den informazio gehiena eta abstrakzio-maila ona dago ideien kontzeptuak azaltzean. Garrantzirik gabeko arazo zehatzen bat dago. Erregistroa ondo egokitzen zaio komunikazio-egoerari.	Terminologia zehatza eta zuzena da, ortografia eta sintaxia akatsik gabekoak dira. Enuntziatuak bikain eraiki dira. Ideiak eta esaldiak oso ondo lotuak, arazorik gabe. Beti hautatu da informazio egokiena eta abstrakzio-maila altua dago ideien kontzeptuak azaltzean. Erregistroa bikain egokitzen zaio komunikazio-egoerari.

PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAREN ERRUBRIKA: ESPAZIO BIRTUALA ETA LAN IDATZIA				
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	Hobetu behar (0-4.99)	Onargarria (5-6.99)	Lan ona (7-8.99)	Lan bikaina (9-10)
<b>3. Sarrera eta marko teorikoa</b>	Marko teorikoa ez da egokitzen Haur Hezkuntzaren interes, ezaugarri eta beharretara. Graduan, minorreko irakasgaietan eta feedback saioetan zehar emandako jarraibideak ez dira integratzen.	Marko teorikoak azaletik errespetatzen ditu Haur hezkuntzaren interes, ezaugarri eta beharrak. Graduan, minorreko irakasgaietan eta feedback saioetan zehar emandako jarraibideak ez dira guztiz integratzen.	Marko teorikoak egoki errespetatzen ditu Haur hezkuntzaren interes, ezaugarri eta beharrak. Graduan, minorreko irakasgaietan eta feedback saioetan zehar emandako jarraibideak modu egokian integratzen dira.	Marko teorikoa sakonki argudiatu da eta Haur hezkuntzaren interes, ezaugarri eta beharrak errespetatzen ditu. Graduan, minorreko irakasgaietan eta feedback saioetan zehar emandako jarraibideak bikain integratzen dira.
<b>4. Justifikazioa, hausnarketa pedagogikoa-artistikoa eta koherentzia</b>	Proposamenak ez du helburuekin bat egiten. Marko teorikoa eta aipatzen diren erreferenteak (pedagogikoak eta artistikoak) ez dira nahikoak eta ez dute loturarik irakasgaiekin ezta proposamen artistiko-pedagogikoarekin ere ez.	Proposamenak ez du guztiz helburuekin bat egiten. Marko teorikoa eta aipatzen diren erreferenteak (pedagogikoa eta artistikoak) nahikoak dira, irakasgaietan landutakoak eta lotura dute proposamen artistiko-pedagogikoarekin.	Proposamenak helburuekin bat egiten du. Marko teorikoa eta aipatzen diren erreferenteak (artistikoak eta pedagogikoak) irakasgaietan ikusitakoak baino gehiago dira eta lotura dute proposamen artistiko-pedagogikoarekin.	Proposamenak helburuekin guztiz bat egiten du. Marko teorikoa eta erreferenteak (artistikoak eta pedagogikoak) esanguratsuak, anitzak eta berriak dira. Ondo lotzeaz gain irakasgaietan ikusitakoarekin, sakontzen du eta indartzen du proposamen artistiko-pedagogikoa.
<b>5. Proiektu artistiko-pedagogikoaren gidoia</b>	Ez da proiektuaren ezta parte-hartzaileen deskribapenik egiten. Proiektua azaltzeko gidoiak ez ditu beharrezkoak diren akotazioak, oharra eta xehetasunak bere baitan.	Proiektuaren eta parte-hartzaileen deskribapena oso eskasa da edota hauetako bat ez da agertzen. Gidoiak proiektua azaltzeko beharrezkoak diren akotazio, ohar eta xehetasun gutxi ditu bere baitan.	Proiektuaren eta parte-hartzaileen deskribapena nahikoa da. Gidoiak proiektua azaltzeko beharrezkoak diren akotazio, ohar eta xehetasun nahikoak ditu bere baitan.	Proiektuaren eta parte-hartzaileen deskribapena bete-betekoa eta esanguratsua da. Gidoiak proiektua azaltzeko beharrezkoak diren akotazio, ohar eta xehetasun nabarmen eta esanguratsuak ditu bere baitan.
<b>6. Ebaluazioa eta ondorioak</b>	Ez dira agertzen.	Prozesua eta emaitzarekin gertatutakoa aipatzen da baina sakontasunik gabe. Taldeko funtzionamendua deskribatzen da baina ez da hausnarketarik egiten. Hobetu beharreko alderdi batzuk zehaztu dira, baina ez da horiei buruz hausnartu.	Prozesua eta emaitzarekin gertatutakoaren eta taldeko funtzionamenduaren inguruan hausnartzen da, baina batzuetan, sakontasuna falta da. Hobetu beharreko alderdi guztiak zehaztu dira baina azaleko hausnarketa bat egin da.	Prozesua eta emaitzarekin gertatutakoaren eta taldeko funtzionamenduaren inguruan modu sakonean hausnartzen da. Hobetu beharreko alderdiei buruzko gogoeta landua agertzen da.

## 11. MODULURAKO BIBLIOGRAFIA PROPOSAMENA

### OINARRIZKO ERREFERENTZIAK

Alonso, M.; y Matilla, L. (1990). *Imágenes en acción*. Akal.

Antequera, M. (1995.). *Educación y enseñar con títeres. Materiales para educadores*. Editorial Central.

Belver, M. H. y Ullán, A. M. (2007). *La creatividad a través del juego*. Amarú.

Delpeux, H. (1972). *Títeres y marionetas*. Vilamala.

DECRETO 121/2010, de 20 de abril, de modificación del Decreto por el que se establece el currículo de la Educación Infantil y se implantan estas enseñanzas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Escaño, C. (2005). Posibilidades y realidades de Internet en la educación artística. Propuesta para la posmodernidad: un entorno virtual común y universitario orientado a la educación artística y su investigación. In R. Marín (Ed.), *Investigación en educación artística*, 373-394. Universidad de Granada.

García del Toro, A. (2011). *Teatralidad. Cómo y por qué enseñar textos dramáticos*. Graó.

Hetzel. *Máscaras*. Librería pedagógica.

Kampmann, L. (1972). *Teatro de marionetas*. Bouret.

Lleixá, T. (coord.) (2000). Educación infantil 0-6 años, (vol. II). Expresión y comunicación. UPV/EHU.

Labayen, A.M. (1984). Euskal teatrogintza. Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria, RIEV, 29(2), 247-260. Donostia: Eusko Ikaskuntza. 2013ko urriaren 11n berreskuratuta, <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/29/29247260.pdf>

Lequeux, P. (1977). *El niño creador de espectáculo*. Buenos Aires: Kapelusz.

Luque Blanco, J.L. (2006). Frederick Kiesler y el teatro de vanguardia. *Oppidum*, 2, 291-320. Universidad SEK.

Mantovani, A. (1981). *El teatro un juego más*. Nuestra Cultura.

Pessel, A. (1975). *100 ideas. Sombras corporales*. Vilamala.

Teatro en la escuela. Dossier. (1995). *Cuadernos de Pedagogía*, 233.

Tresserras, A. (2017). *Aportaciones a la formación del profesorado a partir del análisis de una experiencia de arte y juego dramático en el primer ciclo de Educación Infantil*. Tesis Doctoral. UPV/EHU.

Urquizu, P. (2007). XX. mendeko euskal teatroaz ikuspegi orokorra. *Hega-ts: literatur aldizkaria*, 40 (monografikoa: euskal antzerkia), 55-78.

Vallon, C. (1984). *Práctica del teatro para niños*. Ceac.

Vizcarra, M (Koord.), Alvarez-Uria, A., Aristizbal, P., Caminoa, I., Lasarte, G., Tresserras, A., Zelaieta, E. y Zuazagoitia, A. (2014). *Kubik: an-tzezan bat baino gehiago: haur hezkun-tzarako proposamen artistiko-pedagogiko bat*. Euskal Herriko Unibersitateko Argitalpen Zerbitzua/Universidad del País Vasco, Servicio Editorial.

Vizcarra, M. T. (2007). *Garapen psikomotorra Haur Hezkun-tzan (0-6 urte)*. Euskal Herriko Unibersitateko Argitalpen Zerbitzua.

Vizcarra, M. T. (Koord.) (2014). *Gorputz adierazpena Lehen Hezkuntzan*. Euskal Herriko Unibersitateko Argitalpen Zerbitzua.

## HEZKIDETZA, EMAKUMEAK ETA KOMUNIKABIDEAK

Abril, P. y Romero, A. (2008). *Recursos para la implementación del género en la Educación Infantil*. Gender Loops proiektua.

Abril, P., y Romero, A., [http://pacoabril.net/joomla/images/articles/spanish\\_toolbox.pdf](http://pacoabril.net/joomla/images/articles/spanish_toolbox.pdf)

Apodaka, M. J., y Ugarte, B. (2007). *Hezkidetza gida*. Euskal Herriko Bilgune Feminista.

Belmonte, J., y Guillamón, S. (2008). Coeducar la mirada contra los estereotipos de género en TV. *Comunicar*, 31, 115-120.

Coll, M. y Selva, M. (1992). Las mujeres y los medios de comunicación: la TV y el cine. In: *Hacia una escuela coeducadora. 1er postgrado de coeducación*. Escuela Universitaria de Formación del Profesorado de Álava. UPV-EHU. Emakunde.

Cordeiro, C., Herrero, A., Rodríguez, A. y Ruiz, P. (2005). *Komunikabideetan sexismoa ekiditeko Estilo Liburu*. Euskal Herriko Bilgune Feminista.

Feminist Frequency. *Bechdel test for women in movies*. <http://feministfrequency.com>

LAB sindikatua. Hezkidetzarako Unitate Didaktikoak: [http://irakaskuntza.labsindikatua.org/index.php?option=com\\_content&view=category&layout=blog&id=104&Itemid=51](http://irakaskuntza.labsindikatua.org/index.php?option=com_content&view=category&layout=blog&id=104&Itemid=51)

Medrano C., Aierbe, A., y Orejudo, S. (2009). El perfil de consumo televisivo en adolescentes: Diferencias en función del sexo y estereotipos sociales. *Infancia y Aprendizaje*, 32(3), 293-306.

Mujeres en red. <http://www.nodo50.org/mujeresred/>

STEE-EILAS Sindikatua. *Emakumeen karpeta 2010. Hezkidetza da bidea*. [http://www.stee-eilas.org/03arloak/karpeta%20emakumea\\_e.htm](http://www.stee-eilas.org/03arloak/karpeta%20emakumea_e.htm)

Ugarte, B. (2002). Emakumea hezkuntzan. *Hik Hasi*, 64, 8-17.

Ugarte, B., Moral, B., Pe-txarroman, B. Y Apodaka M. J. (2005). Hezkidetza, detaile sutilen indarra. *Hik Hasi*, 96, 8-17.



## INTERNET HELBIDEAK

ARTELEKU, arte eta pen-tsamendu garaikideko webgunea, <http://www.arteleku.net/>

BEHINOLA, Haur eta gazte literatura aldizkaria, <https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/behinola>

Conexiones Improbables, <https://conexionesimprobables.es/v3/Que-somos-general--Conexiones-improbables--esp>

Etxepare Euskal Institutua, <https://www.etxepare.eus/eu/euskal-literatura>

Ganbila, <https://www.ganbila.eus/>

HIKHASI, <http://www.hikhasi.com/>

Instalaciones de juego. <https://instalacionesdejuego.com/>

TANTAK, Hezkuntza aldizkaria, <http://www.ehu.es/ojs/index.php/Tantak>

Teatro Testuak, <http://mikelmartinez.eus/teatrotestuak/eskolantzerkia>

UZTARO, Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria, <http://www.uztaro.com/index.html>

**12. 1. ERANSKINA: Moduluko lanean inplikaturako irakasgaien gai zerrenda**

HIZKUNTZA PLASTIKOA ETA IKUSIZKOA	GAIT. / MAILA				
	1	2	3	4	5
IRAKASGAIKO GAITASUNAK					
A) Ikusizko baliabide, teknika eta estrategia ezberdinak ezagutzea, ipuinen eta dramatizazioen narrazioetan eta ilustrazioetan erabiltzeko.		X			
B) Elementu plastiko eta ikusizko ezberdinak erabiltzea, koreografiaren eta dantzen eszenografiarako materialak sortzeko.		X		X	X
C) Dramatizazioari aplikatzeko aukera plastikoak ezagutzea.		X			
D) Narrazioak eta ipuinak ilustratzeko teknikak menperatzea, irudiarekin eta eszenografiarekin jolas eginaz.		X		X	X

1. GAIA. Narrazioetan aplikatzeko teknika eta estrategia ikusizkoak.
2. GAIA. Dramatizazioari aplikatzeko aukera plastikoak.
3. GAIA. Ilustrazioarekin, narrazioarekin eta eszenografiarekin zerikusia duten teknika ikusizkoak eta plastikoak.

MUSIKA HIZKUNTZA	Ikasturteko gaitasunak				
	1	2	3	4	5
IRAKASGAIAREN GAITASUNAK					
A) Genero eta estilo musikal ezberdinak ezagutzea, narrazioak, ilustrazioak eta ipuin musikalak egiteko.	X	X			
B) Elementu musikal ezberdinak lantzea, mugimenduaren bitartez, koreografia eta dantza errepertorioa asmatzeko edo praktikan jartzeko.		X	X		
C) Gorputzaren adierazpenerako aukerak ezagutzea, dramatizatutako abestiei aplikatzeko.		X		X	
D) Eskolako musika-tresnen teknika menperatzea, narrazioetan edo ipuin musikaletan erabiltzeko.			X	X	X

1. GAIA. Musika eta koreografiak.
2. GAIA. Gorputzaren aukera erritmikoak.
3. GAIA. Instrumentuak.

<b>GORPUTZ HIZKUNTZA</b>	<b>GAIT. / MAILA</b>				
IRAKASGAIKO GAITASUNAK	1	2	3	4	5
A) Gorputz adierazpenaren eta hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioaren (mimika, komunikazio motorren zeinu-estandarrek) oinarriak praktikan jartzea. Gorputza eta haren adierazpen-dimentsioak ezagutzea, pertsonekin eta inguruarekin zerikusia duten esperientzien bitartez.	X	X	X		
B) Kreatibitatea eta espresio-komunikazio agerpenak aurrera eramatea, dramatizazioaren, mimoaren eta dantzaren bitartez, aintzat hartuta beste hizkuntzetakoa (musikala, plastika, bisuala, hitzezkoa eta ahozkoa).			X	X	X
C) Dramatizaziorako teknika eszenikoak ezagutzea.	X		X		X

1. GAIA. Gorputzaren adierazpen-dimentsioak.
2. GAIA. Dramatizazioa, mimoa eta dantza.
3. GAIA. Teknika eszenikoak.

<b>ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIO TREBETASUNA</b>	<b>GAIT. / MAILA</b>				
IRAKASGAIKO GAITASUNAK	1	2	3	4	5
A) Testu literarioen kontaketa egitea, literaturzaletasuna pizteko eta literatura eta eguneroko bizitzaren arteko harremana lantzeko.	X	X			X
B) Testu literarioen dramatizazioa egitea gozamen iturri eta irudimenaren bultzatzaile gisa.		X	X		X
C) Ipuinak sortu eta ahoz kontatzea beren balio etiko eta estetikoak lantzeko.		X	X	X	X
D) Gidoi dramatikoak sortzea literatur testu idatzietatik abiatuta, ahoko diskurtsoaren ezaugarriak ezagutzeko eta genero testualak desberdintzeko eta komunikazio bide desberdinak identifikatzeko.	X	X	X	X	X

1. GAIA. Ipuin kontalaritza eta ahazkotasuna
  - 1.1. Ipuinak sortzea, kontatzea eta hitzekin jolastea
  - 1.2. Ahazko diskurtsoa ezagutzea eta praktikan ipintzea
2. GAIA. Testu literariotik antzezpena
  - 2.1. Euskal literatura dramatikoaren historia
  - 2.2. Literatur testuetatik gidoi dramatikoak sortzea

DRAMATIZAZIO ADIERAZPENERAKO INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK	GAIT. / MAILA				
	1	2	3	4	5
IRAKASGAIKO GAITASUNAK					
A) IKTen teknikak eta oinarriak ezagutzea, haurren komunikazioa eta adierazpena hobetzeko, baliabide digitalen erabilerari esker.	X		X		
B) Ikus-entzunezko hizkuntzak eta beren hezkuntza-inplikazioak aztertzea.		X		X	X
C) IKTekin lankidetzan aritzea eta irakasgai ezberdinak erlazionatzea, komunikazioari eta adierazpenari zentzia emateko.			X		X
D) Historia dramatikoak hobetzen laguntzen duten proiektuak prestatzea eta aurrera eramatea IKTetan.	X	X		X	

1. GAIA. IKTen teknikak eta oinarriak, baliabide digitalak.
2. GAIA. Ikus-entzunezko hizkuntzak eta beren hezkuntza-inplikazioak.
3. GAIA. Proiektu pedagogikoa.

### 13. 2. ERANSKINA: talde funtzionamendua eta kudeaketa

Aurreikusten dituzun oztopo edo gertaerak	Kezkatzen nau	Ez nau kezkatzen
Taldean taldekide batzuen nagusitasuna eta kontrola egotea uzten dugu.		
Taldekide batzuk ez dute behar den beste parte hartzen, ezta ekarpenak egiten ere.		
Taldekide batzuk ez dute besteak errespetatzen edota ez dituzte besteen iritziak arreta osoz entzuten.		
Etengabe kentzen diogu hitza batak besteari taldean eta taldekideari moztzen diogu hitzegiterakoan.		
Bakoitzak bakarrik bere ideiak defenditzen ditu insistentzia osoz eta ez ditugu beste taldekide batzuen ideiak garatzen edo lantzen.		
Buelta gehiegi ematen diegu kontu batzuei, zenbait argumentu etengabe errepikatzen ditugula; hortaz, ez dugu askorik aurreratzen.		
Ez dugu behar genukeen bezala partekatzen gure artean indibidualki egiten dugun behaketa eta lanaren emaitzak (eta talde sormenean erabiliko direnak).		
Taldekide batzuk ez dute bere lana behar den bezala aurrera eramaten.		
Lana ez dago hain banatuta; hau da, lanaren banaketa ez da zuzena.		
Ez ditugu argi ez eginbeharrak ez helburuak.		
Ez ditugu gure erabakiak argitasunez sortzen eta ezartzen.		
Erabakiak ezartzerako momentuan ez dugu argi esaten nork egin behar duen zer.		
Ez dakigu lehentasunak jartzen: pisu gutxiko edo probetxugarriak ez diren kontuen inguruan eztabaidatzen dugu maiz.		
Gure bileretan askotan norbait falta da.		
Gure bilerak ez daude ondo planifikatuta ezta gidatuak ere.		
Aipa itzazu egon liratekeen hobekuntzak, kasua balitz.		
<b>KONTU POSITIBOAK</b>		
Aipa itzazu taldearen ezaugarri positiboak lankidetzaz edo kooperazioaren aldetik (bost gutxienez).	1. 2. ...	
<b>EKINTZAK</b>		
Taldearen funtzionamendua hobetzeko aplikatuko dituzuen ekintza konkretuak zerrendatu, arau berriak sortuz (hiru ekintza gutxienez).	1. 2. ...	
<b>Nire partaidetza taldean</b>		
Nolakoa da nire partaidetza.		
Nere inplikazioa objektiboei begira.		
Egin ditudan ikasketak.		
Nere partaidetzaren alderdi onak eta sendoak.		
Nere partaidetzaren alderdi ahulak edo hobetu beharko liratekeenak.		